



EKIE TAILERRAK

Euskarak eta kirolak elkarrekin jokatzeko



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

OHARRAK

- Hurrengo lerroetan, klub eta eragile guztientzako oinarri teoriko eta mezu-lerro nagusiak agertzen dira. Oinarria eta mezu bera ematen die denei Euskara Zerbitzuak, baina hartzaileari egokitzen dio, izan ere, entrenatzaile gazteek, urte askotako esperientzia duten zuzendaritza batzordeetako kideek, klubetako langileek... parte har dezakete.
- Tailerrak euskaraz dakitenekin euskaraz egiten dira, eta ez dakitenekin, gaztelaniaz. Bi taldeetan mezu bera ematen dela azaltzen zaie, baina, norberaren hizkuntza-gaitasunaren arabera, ekintzak alda daitezkeela. Garrantzitsua da eroso egotea eta denek jakitea mezu bera jasotzen dutela.
- Era berean, garrantzitsua da euskararekin nola sentitzen diren galdetzea, ez dakitenei adieraztea ohartzen garela ez dela erraza haientzat, ongi azaltzea euskara ez dela soilik komunikazio-tresna bat euskaldunontzat; eta horregatik ari garela euskaren alde lanean eta gure hizkuntzan komunikatzeko ahaleginetan.
- Ekarpena egiten dutela nabarmentzea ere garrantzitsua da; eta egiten ez badute, atzera begiratu gabe, hemendik aurrera has daitezkeela adierazi behar zaie. Hain zuzen, horretarako da tailer hau, nola egin eta aukeran dituzten baliabideez hitz egiteko.

ZER LANDU NAHI DA

EUSKARAZ DAKITENЕК ETA EZ DAKITENЕК

- Bizi eta inguratzen gaituen egoera soziolinguistikoa hobeki ulertzea
- Eskolaz kanpokoak duen garrantzia jakinaraztea
- Helduen erreferentzialtasunaz jabetzea
- Euskarak ematen dizkigun abantailak ezagutzea
- Jarrera eta baliabide praktikoak eskaintzea

**Euskara erabiltzea ez da soilik dakitenen ardura.
Giroa eta baldintzak behar dira. Horiek sortzea denon egitekoa da.
Denok egin dezakegu mesede, eta alde egiteko denok zilegiztatuta gaude**

HARTZAILEAK

**Kirol eta kultur arloko hezitzaileak
Elkarteetako kideak**

**Euskaraz dakitenak (euskaraz)
eta ez dakitenak (gaztelaniaz)**

Elkarteetako kideak

EDUKIAK

Oinarri teoriko komuna

**Eduki praktikoko egokitua profil
linguistikoaren arabera**

**Eduki praktikoa elkartearekin
adostua**

METODOLOGIA

**Azalpen zuzenak taldeari, joko bidezkoak,
asmakizunak, talde txikiko ariketak...**

**Eta galdera asko, sentitu bezala
erantzuteko. Adibidez:**


Zer ematen digu kirol elkarte batek, guri eta gure inguruari? Zer da euskara zuentzat, euskara dakizuenentzat, eta ez dakizuenentzat? Zer egin dezaket? Zein abantaila ditu euskarak edo zer ematen digu?...

EGOERA ULERTZEA BEHARREZKOA DA

Hizkuntzen normalizazioa: ezagutza + erabilera

Eskolak bakarrik ezin du

Eskolaz kanpokoaren funtzioa: Hizkera informalak, motibazioa, atxikimendua



**Euskara balore bat da,
komunikazio tresna bat baino askoz ere gehiago.**

HIZTUN MINORIZATU BATEN EGUNEROKOA

Erabili / ez erabili hautu eta zalantza etengabea

Balore bati lotutako etenik gabeko dislokazioa (naturalizatua edo automatizatua?)

Ikuspegi komunikatiboa vs balore ikuspegia

Galderak:

Gure jarrerak neutroak dira?

Adibidea: zenbait egoeren aurrean ezer ez egitea... benetan jokaera neutroa da?

ERREFERENTZIALITASUNA ETA KAPITAL SOZIALA

Kapital soziala, gizarte zientzien ikuspegitik
Elkarteeak sortzen dute: harremanak, baloreak, ehundura soziala, bizipenak, oroitzapenak, ilusioak, emozio
positiboak, giroa, zerbaiten parte izatearen sentrazioa... Zein hizkuntzatan?

Transmititzen diren baloreak: taldekotasuna, berdintasuna, kiroltasuna... eta euskara?
Zer gertatzen da bizipen eta errealitate horietatik kanpo geratzen bada?

**Hizkuntza batek zenbat eta erabilera gehiago,
orduan eta merkatu-balio eta prestigio handiagoa**
(bestela, funtzio horiek erdarek hartzen dituzte=hizkuntza ordezkapena).

GIRO ETA BALDINTZA EGOKIAK

ZERGATIK, EDO ZERTARAKO?
Jokaerak ez dira neutroak

Umeek continuum koherentea behar dute:

Familia
Eskola
Gizartea
Elkartea

Euskara ezin da bat-batean haien bizitzatik desagertzen den elementu bat izan (elkartean).
Zergatik? Txarra da, arazoren bat...? Dislokazioa elikatu

Euskaraz dakitenen gain bakarrik ezin du geratu euskara erabiltzea (bide nekeza, eta, sarri, bakartia).
Denon ardura da giro eta baldintza egokiak sortzea, eta continuum horiek bideratzea.

Kirolak eta euskarak elkarrekin jokatzearen onurak (1)

- Euskara balorea da, dakitenentzat, eta ez dakiten donostiar askorentzat. Erabiltzen badugu, balore hori klubeko bizitzan eransten da.
- Ingurumenarekin eta balore sozialekin konprometitua dagoen klub baten irudia proiektatzen da.
- Talde kohesioa eta pertenezia sentimendua indartzen da.
- Identitate bereki eta berezitua sortzen laguntzen du.
- Kluba hurbilago sentitzen dute familia eta erabiltzaile askok, eta hobeto identifikatzen dira klubarekin.
- Kasu askotan, balio partekatua ematen dio klubari bere langileekin.
- Langileak klubarekin identifikatuago sentitzen dira, hobeto identifikatzen dira erabiltzaileekin, eta inplikatuago sentitzen dira.
- Euskara naturaltasunez bizipen positiboek, lagunei eta aisiari lotuta bizitzea dakar.
- Haurren eta gazteen gizarte- eta hizkuntza-garapena bultzatzen eta aberasten da.
- Kultura ikuspegia aberasten da.
- Norbanakoen eta taldeen komunikazio gaitasunak handitzen dira.

Kirolak eta euskarak elkarrekin jokatzearen onurak (2)

- Beste hizkuntzak ikasten laguntzen du.
- Familiek koherentzia handiagoa dute aukeratu duten hezkuntza- eta kirol-ereduarekin.
- Kirol heziketa aberatsagoa lortzen da.
- Ikastetxeen eta inguruko gizarte-eragileen arteko lerrokatze hobe.
- Klubaren eta familien, ingurunearen eta inguruko klubaren arteko harremana indartzen du.
- Klubak ekarpen bat egiten dio hizkuntza-normalizazioari, eragin-ahalmena duen gizarte esparru batetik.
- Errotzen laguntzen du.
- Zein gehiago gehituko zenituzke?

Euskarak ez dio mesede euskaraz dakitenei bakarrik egiten

Edozein talderi laguntzen dio, bertan egoteak klub osoaren esperientzia aberastu dezakeelako (gizartean bezala), izan ere, aukera eta eredu berriak sortzen ditu harremanetarako, parte hartzeko, kide izateko eta balioak transmititzeko.

JARRERA EREDUAK ETA BALIABIDE PRAKTIKOAK

Euskaraz dakitenentzat: erabilera aktiboa sustatzeko ariketak

Euskaraz ez dakitenentzat:

Keinuak

Giro euskalduna sortzeko baliabideak

Abegikortasuna

Eta zer gehiago?

URRATSAK PLANIFIKATU


ELKARTEAREN PROFILAREN ARABERAKO EGOKITZAPENA

- Ulermena bermatua / ez bermatua
- Babesgune edo arnasmune izaera
- Helburua: erabilera handitzea

GOMENDIOA

IDATZITA JASO, BESTE BALOREAK BEZALA

- Elkaratearen estatutuetan, edota kode etikoari lotutako dokumentuetan, elkaratearen baloreetan...
- Abiatze-plan batean: presarik ez, baina data bai.



**Zer egin gaurtik bertatik presentzia
handitzeko gure elkartean?**

**Data jarriko dugu, konpromiso forma
emateko?**



Erreferentziak:

- P.Kasares: "Euskararen belaunez belauneko jarraipena hizkuntza sozializazioaren paradigmatic" BAT Soziolinguistika Aldizkaria 82, 2012.
- Soziolinguistika Klusterra, 2020. EUSKARA KIROLKIDE. Lanketa teoriko-kontzeptuala.
- Bourdieu, P. (1986) Las formas del capital. En J. Richardson (Ed.).